

FUNTZEZKO JARDUERAK

• Ekoizpena (produktuak diseinatzea, ekoiztea eta entregatzea).

Kosmetiko ekologiko eta beganoa sortzea, kalitate handiko eta jasangarriak diren osagaiekin. Produktuak egiteko eta kalitate- kontrol zorrotza bermatzea egiterakoan. Eta azkenik produktuak webgunearen bidez saltzea.

- **Produktuak diseinatzea:** Produktuen formulak garatzea, jasangarriak eta kalitate handiko osagai naturalekin.
- **Ekoizpena egitea:** Ekoizpen prozesu arduratsua eta ingurumena errespetatzen duena erabiltzea.
- **Kalitate kontrola:** Produktu bakoitza zorrotz aztertzea, ziurtatzeko estandar guztiak betetzen dituela eta bezeroaren beharretara egokitzen dela.
- **Logistika eta entrega:** Produktuak garaiz eta modu seguruan bidaltzeko logistika ondo antolatzea. Gure produktuak guk ekoitziko dugu lokal zabal eta handi batean leku gehiago izateko

• Arazoak konpontzea.

Produktu batean akats bat izanez gero, arazoa azkar konpontzea eta hobetzeko neurriak hartzea, beste produktuak ez eragiteko. Eta produktuak galtzen edo txarto badabil, gure bezeroekin kontaktua eukitea arazoa ahalik eta azkarren konpontzeko.

-Bezero edo ekoizpen prozesuan akatsen bat gertatzen bada, arazoak azkar eta eraginkortasunez konpontzea.

-Hobetzeko neurriak hartzea, arazoak berriro ez gertatzeko.

-Bezeroarentzako arreta-zerbitzua: Bezeroekin kontaktua izatea (webgunearen bidez edo sare sozialetan) eta arazoak edo erreklamazioak modu pertsonalizatuan kudeatzea.

• Plataformako edo sareko jarduerak (plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea).

Gure online denda eroso eta erraza izatea gure bezeroek erosteko produktuak. Hala nola, Sare sozialetan(TikTok, Instagram) edukitzea, bezeroekin harremanak izateko eta beste pertsona batzuk gure produktua ezagutzeko. Gainera gure plataforma ondo funtzionatzeko, tekniko bat kontratatuko genuke arazoak konpontzeko eta hobetzeko webgunearen itxura.

Gure webgunea eta sare sozialak ondo kudeatzea eta sustatzea oso garrantzitsua da. Horretarako:

-Online denda eroso sortzeko: Webgunea erabiltzeko erraza izan dadin eta bezeroek erosketak azkar egin ditzaten.

-Sare sozialak erabiltzea: TikTok, Instagram eta antzeko plataformetan eduki erakargarria sortzea. Horrela, bezero berriak erakartzen ditugu eta harremana sortzen dugu gure komunitatearekin.

-Marketing digitala: SEO teknika eraginkorrak eta iragarkiak erabiltzea gure produktuak ikusgarriagoak izateko.

-Mantentze-lanak: Webgunea eta plataforma teknologikoak beti ondo funtzionatzen dutela ziurtatzeko teknikari bat kontratatzea.

